

riak eman diona, egunkari eta komunikabide guztietara zabaldu zuen kronika guztiz Amatiñoren bertsioaren ildora mugatzen bait zen. Itxura denez, Vasco Press agentziaren sortzeak asko zor dio ETBri hasieratik eman zion apoioagatik, eta oraingoan bilbotar agentzia horrek egin duena faborea bueltatzea baino ez litzateke izango, zenbait eritziri kasu eginez gero. Horrekin batera esan behar da bertsio horri jaramonik egin ziotenak, «El País», «Egin» eta irrati gehienek («Deia»k ez bezala) arnas apur bat eman ziotelarik Amatiñori.

Langile-Batzordearen alderdi ezkutak

Konflikto guzti honetan Langile-Batzordeak zein paper betetzen duen eta zein ildotatik mugitzen den jakitea ez da dirudien bezain erraza. Beren bederatzi partaideetatik hiru ELAkoak dira eta beste seirak independenteak. Independiente horiek zelakoak diren jakiteaerabat zaila gertatzen da, eta beharbada hortik dagokio Batzordeari bere zehaztasun falta presupostu sindikalei buruz. Esan beharra dago ETB barruan dagoen kontrol ideologikozko giroak kasik ezinezkoa bihurtzen duela pentsamolde erradikal bezalako definizioak publikoki egitea.

Alde batetatik, Batzordearen ustez gaurregun ETBk barruan duen gatazka nagusia teknikoa edo laborala da

eta ez politikoa. «Gure nahia —zioskun greba-batzordeko partaide batek— langileon eskubide batzu defendatzea da, eta alde horretatik ikusi behar da gure oraingo indar-neurri hau. Guk ez dugu ukatzen Amatiñoren inguruan muntatzen ari den iskanbila guzti horren azpian arrazoin politikoak ez daudenik, baina horiek ez dagozkigu guri».

Dena dela, aldian behineko grebaren proposamena egin zen garai beretsuan, Langile Batzordeko zenbait partaide, Batzordekoa ez zen beste batekin batera, Xabier Arzallusekin egin zuten bilera bat, jeltzale burukideari Amatiñoren kargu-kentzea eskatu ziotelarik. Arzallusek ezetz esan omen zien, partidua beste lehentasun batzu zituela eta Amatiñorena ez zela epe motzekoen artean sartzen.

EBBk ez du epe motzean leporik moztuko


Bilera horren gisako beste batzu egin omen ziren beste alderdi politiko batzuekin, baina maila informatibo hutsean antza denez. Langile-Batzordeak zergatik jo zuen Arzallusengana zuzenean eta ez EBBkoengana, inork argitu ez digun misterioa da. Guzti horrek, nolabait, lausotu egiten du Langile-Batzordearen zeregina, ahoz arrazoin politikoetatik kanpo daudela dioten bitartean, partaidetako batzu (ez guztiok, egia da) Amatiño pikutara bidaltzeko halako azpijoku politikoez baliatzen denean.



Epe motzean gehien gogortu daitezkeen istiluak laboralak izango dira.

Ez da ahanzi behar, dena dela, Arantzaz lehendakari izendatu zutenean bilera pertsonal bat eduki zutela ETBko zuzendariak eta lehendakariak berak, eta azken honek zera agindu ziola: bere karguan segitzen utziko zutela, orduan ere urrutitik ere ez zutela pentsatzen Luis Alberto Aranbarriren ordezkari beste inor ez ipintzea eta hori —suposizioak eginez gero— bi arrazoiengatik: PNV barruan prolema larriagoak zeudelako Garaikoetxearen istiluarekin sortuak batetik, eta bestetik Amatiñoren ordezkari bat bilatzea erabat zaila gertatzen delako (fakultatez zein beste proiektu berri bat eraiki behar litzatekeelako). Duela gutxi berriro ere galdetu berri omen zaio Arantzazari ea Amatiño bere kargutik baztertzeko asmorik badagoen eta erantzuna ezezkoa izan da. Garbi dago, beraz, EBBk oso epe luzeko politika ari dela jokatzen ETBekin: alde batetatik, gaurko egoera eta zuzendaritza prentsa bidez lokaztu, eta bestetik, ETBren proiektu berri bat osatu eta aurrera eramango duen pertsona nahiz ekipoa bilatu. Guzti hori ongi lotuta egon arte, PNVk ez dirudi Amatiñoren burua eskatuko duenik, eta pausu hori ematen duenean aski argi edukiko du zelako planteiamendu berriei hornituko duen ETB. Eta noski, erabaki horrek zoriarekin 3. kanalarekin eta euskarari buruzko erizpide linguistikoak aldatzearekin oso lotura estua izango du. Maila politikoetan aldaketazko erabakirik hartzen ez den bitartean (eta ez da hartu), Langile Batzordeak bakarkako lasterketa dauka Amatiñoren jauntxo-ohituren kontra borrokatzen.

J. LANDA



ETBko materiala erosteko garaian, eta hasierako proiektua zehaztu zenean, erein omen zen gaurko istiluen hazia.